



# KARMEL

Irugarren Aroa

121'gn. zenbakia

1 - 1970

## ITZ BI

Egunak eguna dakar. Leza-osiñak, esan oi dogunez, lezari dei. Emen gu be, geure barruko deiak dei eginda, nun gatozan lengo arlora barriro. Ezin, ba, aitzu KARMEL aldizkaria. Ta emen gaitzuz, irakurle, barriro be zugaz izketan.

Zortzi urte ixillik! Baiña, barchinakoak, izan be izan. Osa-suna ta argia dogun bitartean. Jazpalarik, gaitzuz, eguneroko lana: «gizonak bere bekokiko ixeratu be izan. Ez gaitzuz eban. Idaztea be lana da, lan gaitza salatu be izan. Bere arriskuak ditu, ta ez gitxi: argitaratu be izan. Bere etsai, baita milla adiskide be; etsaiak, gaitzuz, gaitzuz ba'dau, erreka zulora botako dabe; adiskideak, gaitzuz, gaitzuz be, zeru-izarretaraiño jasoko. Erdiko bidetik, gaitzuz, gaitzuz.

Dana dala, emen datorkigu KARMEL. Zetan? Ez al dira naikoa aldizkari ta errebista euskal errian? Olan dirudi. Baiña munduko errialde ta izkuntza guztietan jazoten dana, au da: an-or-emen, naziño guztietan, gaur ta beti, ugarituaz doazala egunerokoak, izparringiak, aldizkariak eta paperak. Gu, beraz, ez gaitzezan izan moda ta ur-joan orren kontra gabiltzanak. Indar guztiak batean alkartu bear dirala? Gauza askotan, alan be, alkarte aundiak, trust aundiak baiño obeak dira txikiak. Ez dudarik izan. Euskal-erriko industria ez dabe alkarte ta fabrika aundiak gora jaso, txiki ta ugariak baiño.

Gure gauzak, lege, oitura, erlejiño ta izkuntza, zaindu ta obe-jantziz apaintzeko, guztion indar alkartua bear da. Egia. Nik orraitaiño sarri

pentsatu izan dot euskaldun guztiok aldizkari batekin, esaterako, zer egingo gendukean. Gurean paper asko dira gaur; alan be, idazle asko dagoz oindiño nun idatzi ez daukiela diñoenak. Zergaitik? Lekurik eza gaitik; edo, atzo Sevilla'tik artutako karta batek iñoanez, klan edo multzotxo geiegi daukaguzalako. Olako gitxiago ta alkarri laguntzeko griña geiago bear litzake.

Aldizkarietan zarrenetarikoa dogu KARMEL; 1931'ko urtarrillaren lenengoan sortua nunbait, Karmen'go Argia; aren ondorengoa dogu au, Garai atan Argia, Jaungoiko-Zale, Euzkerea, Zeruko Argia, Euskal-Esnalea, Yakintza, Gure Herria ziran, batez be, goi-goi ebiltzanak, eta anai arteko gerra ostean ixil-lezara ziranak. Gero, amaika urtean —1951'tik 1962'ra— KARMEL bizi izan zan, orain, zortzi urte ondoren, barriro indartua lan-arlorra datorrena.

Aspaldiko urteetan, korapillo estuz lotuta bizi izan dira Euskalerrria ta Karmeldarrak. Teresa amak berak ez eban euskal lurrean komenturik jaso, baiña ona etorteko gurari bizia erakutsi bai; ondo daki-gunez, gaiñera euskaldunak guztiz maite zituan eta artu-emon barrubarrukoa izan eban euskal jatorrikoakaz. Karmeldar monja ta prailleak a ilda laster etorri ziran ona. Lareun urte oneitan, gerora, zenbat mesede ekarri ez ete dautsoe Euskalerrriari karmeldar seme-alabak? Eta Euskalerrriak zenbat praille ta monja emon dituan, gaur Euskalerrri ontan, Ameriketari —Txile'n, Peru'n, Kolonbia'n, Panama'n eta Guatemalala'n—, Portugal'en, India'n eta Afrika'n dabilzanak. Gaur Bizkajako eta Gipuzkoa'n bakarrik 11 monja-etxe daukaguz, eta 7 karmeldar praille-etxe. Araba'n eta Nafarroa'n be eztira gitxi. Euskalerrria ta karmeldarrak, beraz, alkarri zorretan dagoz.

Gure errria gaur naste ikaragarrian sartuta dagoanik auzo berri guztiak ukatu. Karmen'go Argia sortukeran, orduko aita jatorrak oneta idatzi eben: «Euskaldun biotza zuzenkor, garbi ta ongillea da, baiña berak kementasun eta jokerari bide onak ematen ezpadizkiegu, laster berak ukertu ta gaiztotuko zaizkigu». Orduko esana gaur be ez yatorke. Errez da euskal biotza, naiz-ta ona izan, pozoi-zulora erastea. Errez zori txarrez, askotxo dira orretan dabilzanak. Begi-zorrotz ibilli lurrean gagoz, ba, euskal gogoaren ardurea dogunok. Goi ta bee, areta bildurgarriz inguratuta gagoz: erlejiñoari buruz nasterik zailenak, eta politikako goraberetan be ez guretzat egokienak. Beiñola Ipar-Amerikak eta, euren erri-legeak atonduteko begi aurrean euki ebezan antxiñako lege ta oiturak zartzat albora itxi ta Lenin, Mao-Tse-Tung eta Marcuse ta olakoen eritxi ta asmoak saltzen doguz obetzat. Baiña jakin beie iru

maixuon jarraileak, areik ez ebela egundo be euren erriaren gogoa —ezpiritua— ezetsi ta albora bota, arretaz ezagutu, jagon eta indartu baiño.

Bide onetatik jo nai dau KARMEL'ek. Euskalerrria itxartu, jaso, indartu, egoki yakun kultura emonaz gorputz eta arima duindu. Iñor ezetsi barik. Anaitasunean, alkarreganako maite-garrean. Ona bere asmoa ta elburua.

Gizonak ba-ditu bere eskubide kendu-eziñak; gorenenak: nortasuna, askatasuna, bizia... Eta KARMEL'ek, lenengo, gizon legez begiratuko dau euskalduna. Ortarako bere eskubideak azalduko dautsoz, bere osasuna, ondasunak, bere industri ta sal-erosketak, baserri-gaiak, sukaldako jardunak, modak, sendi ta familiaren gora-berak.

Bigarren, kristau legez. Arima ta gorputz garean ezkerro, ezin daikeguz alboraegi laga geure arimako arazoak: Jainkoa, erlejiñoa, eleiz-edestia, santuen bizitzak, karmeldar santuen dotriña ta irakatsiak, Batikano'ko II Batzar agiriak, mixiño-gaiak, eta abar.

Irugarren, gizatiar danez. Geografi, istori, oitura, erri-jakintza, folklore, euskera, euskal pilosopi, biografi, bioloji, izar-gaiak, izpar, itaunerantzun, eta abar erabiliko ditu.

Laugarren, erlilari edo artista danez, irakurgaiak, ipuiñak, olerti ta bertsoak, musika ta estetika gaiak, liburu-eritxiak, diskak, antzerkiak, eta abar eskiñiko yakoz erriari.

Gaiok, alanbe, ez dira goiegitik erabiliko. KARMEL erriari laguntzeko da; ona bere jomuga ta asmoa: erri, xea kulturatu. Beraz, ez goregi ez beeregi, bai bien arteko. Erria beber gorarisa, olatua lez, eta gu idazleok goazan zerbait beerantz, olatua berantzean lez. Idazleak, beti be, alik eta errez, argi ta ondoen idatzi beko dira.

Gai guztiok urratu ta saratzeko solo-lagunak, on eta idazleak bear dira naitaez. Aor, ba, euskal idazle maiteak guztiok ta berak guztiok, eritxi onetakoak naiz aretakoak, KARMEL'en atetik guztiok zabalik. Auxe eskatzen yatzue bakar-bakarrik: edarte idazri dagizuola. Baita eztabaidatik iges dagizuola be. Alperreko eztabaidetan, beru ederrak galtzen.

Zuzendaritzak